



Trebakuntza 2008/5: GERUNDIOAREN ERABILERA OKERRA

Udal idazki askotan gerundioa gaizki erabili ohi da. Akatsaren jatorria, askotan, gaztelaniazko gerundioaren erabilera okerra da.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Gizarte Ongizate zerbitzuaren ordutegia goizeko zortzietatik arratsaldeko hirurak artekoa da, arratsaldez itxita dagoelarik.*
2. * *Gaur haize bolada zakarrak izango ditugu Euskal Herri osoan, zenbait tokitan arriskutsuak izan daitezkeelarik.*
3. * *Saskimaski SA enpresak irabazi du lehiaketa, obrak bere ardurapean geratuko direlarik.*
4. * *Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari, ordaindutako dirua itzultzeko eskatuz.*
5. * *Kilili SL enpresak obrak egingo ditu kale horretan, espaloiak zabalduz eta bi semaforo jarriz.*
6. [Gutun baten amaieran] *Udal langileengan jarri duzun konfiantza eskertuz, jaso ezazu agur bero bat.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. 1. Bi ideia **ezin dira** besterik gabe elkartu **-(e)larik erabilia**. Horretarako, beste baliabide batzuk erabili behar dira; adibidez, **eta, horren ondorioz** edo lokailuak (izan ere, gainera...).

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



Ad. Gizarte Ongizate zerbitzuaren ordutegia goizeko zortzietatik arratsaldeko hirurak artekoa da, **eta** arratsaldez itxita egongo da.

Gaur haize bolada zakarrak izango ditugu Euskal Herri osoan; **kontuz, izan ere** zenbait tokitan arriskutsuak izan daitezke.

Saskimaski SA enpresak irabazi du lehiaketa; **horren ondorioz**, obrak bere ardurapean geratuko dira.

OHARRA: -(e)larik = -(e)nean. Ikusi adibide hauek:

Ad. Autoa gidatzen ari **nintzelarik (=nintzela edo nintzenean)**, azeri bat ikusi nuen errepidearen erdian.

Lotan **nengoelarik (nengoela edo nengoenean)** joan omen zen argindarra.

2. Askotan, bi ideia-arte harremanak **kausa-ondorioa** adierazten du. Kasu horietan, **ezin zaio bigarren aditzari -(e)z erantsi**. Horretarako, beste baliabide batzuk erabili behar dira; batzuetan **-t(z)eko** erabiltzea oso komenigarria da.

Ad. Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari, ordaindutako dirua itzultzeko **eskatzeko**.

Kilili SL enpresak obrak egingo ditu kale horretan; **horren ondorioz**, espaloiak zabaldu eta bi semaforo jarriko dituzte.

OHARRA: bi esaldi lotzeko, aditz bati **-(e)z** eranstean badiogu, esan nahi du **nola** galderari erantzuten diogula eta ekintzak **aldi berean** gertatzen direla.

Ad. Trenean etorri naiz, liburua irakurriz.

- **Nola** etorri naiz trenez? Liburua **irakurriz** / irakurtzen.
- **Bi ekintzak** (trenean etortzea eta irakurtzea) **aldi berean** gertatzen dira.

Zaleak agurtuz alde egin du futbol zelaitik.

- **Nola** alde egin du futbol zelaitik? Zaleak **agurtuz**.
- **Bi ekintzak** (alde egitea eta agurtzea) **aldi berean gertatzen dira**.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org



3. *Eskertuz eta antzekoak baino egokiagoak dira **mila esker, eskerrik asko, esker anitz...***

Ad. **Mila esker** udal langileengan jarri duzun konfiantzagatik. Jaso ezazu agur bero bat.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edota gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: 943260372 (Imanol) eta 946279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Hurrena arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org